

Txistukariak (II): ts, tx, tz. 2. fitxa

ANAYA HARITZA

Izen-abizenak:

Maila: Data:

1. Osatu perpausak hitz hauekin: etzi, etsi, atso, atzo, huts, utz, hotsa, hotza.

- 5. solairuan bizi den 92 urte ditu.
- Maitek asko sufritu zuen lasterketan eta, azkenean, egin zuen.
- Neguan ez du egiten Bartzelonan.
- Trena dator, haren entzun dut.
- ezazu txakurra bakean, Kattalin.
- Gaur asteazkena da, eta ostirala izango da.
- izan zen Alaveseko futbol-partida, ez gaur.
- Andonik eta Zaloak bat egin gabe mintzatu ziren ingelesez.

2. Idatzi definizio bakoitzari dagokion hitz txistukariduna.

- Ugaztun marraskaria, erbiaren antzekoa, hura baino txikiagoa, asko ugaltzen dena eta lurlean egiten dituen zuloetan bizi dena:
- Gauza bat, bat-batean, indar eginez edo kolpe batez, puska edo zatietan bereizi:
- Bi pertsonaren arteko legezko elkartzea, ezkontideen elkarbizitza erabateko eta iraunkorrerako konpromisoa eskatzen duena:
- Zerbaitetan edo norbaitengan sinesmena edo fedea izan:
- Molusku zefalopodo gorputz-luzarana, jateko ona, alboetan hegal moduko bana duena eta garroetako bi oso luzeak dituen:
- Gorputz bizi batean, zati hondatu bat erauzteko edo osatzeko egiten den eragiketa:
- Lurpeko urak ateratzeko lurlean egiten den zulo sakon, estu eta biribila, ertzak harriz edo adreiluz jantzirik dituen:
- Landareez mintzatuz, adar asko dituen:
- Batez ere Euskal Herriko itsasaldean egiten den ardo arin eta garratz samarra: